

ERA-Net SusAn mintegiaren II. edizioko ondorioak

2019ko apirilaren 10ean eta 11n, Holandako Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioak (*LNV*) , *RVO Agentziarekin batera, mintegiaren bigarren edizioa antolatu zuen*, Wageningen Unibertsitatean. Mintegiaren helburua zen ERA-Net SusAn ekimenaren lehen deialdian finantzatutako 14 ikerketa-proiektuen (<https://era-susan.eu/content/research-projects>) epe ertaineko emaitzen berri ematea.

Emitza

Emitza oso arrakastatsua izan zen; izan ere, animalia-ekoizpenerako sistema iraunkorren 14 proiektuetan etorkizun handiko ikerketa transnazionala hauteman zitekeen animalia-ekoizpenerako sistema iraunkorren arloan.

20 herrialde baino gehiagotako 100 ikerlari baino gehiagok elkarrekin lan egin zuten proiektu horietan. Proiektuek 16 milioi euro jaso dituzte guztira, funts nazionalak eta EBko funtsak kontuan hartuta; zehazki, Wageningen Unibertsitateak 6 proiektutan hartzen du parte.

Lehen eguna

Mintegiaren lehen goizean, koordinatzaileek proiektuen *pitchak* aurkeztu zizkieten hiru minutuan ERA-Net sareko 23 herrialdeetako 60 parte-hartzaileei. Proiektuak irudikatzen dituzten objektuak aipatu zituzten, eta diskurtsoak berritzaileak eta sinesgarriak izan ziren.

Poster marketeta networking lunchsaioen ondoren, proiektuek SusAn-en helburuei zer ekarpen egiten dieten eta iraunkortasunaren 3 zutabeetan (garrantzi ekonomikoa, gizarte-onarpena eta ingurumenarekin bateragarritasuna) nolako eragina izango duten azaldu zuten 14 koordinatzaileek. Lehen egunaren amaieran, Wageningen Unibertsitateak bere ukulu esperimentaletako ateak ireki zituen, campusa erakusteko.

Bigarren eguna

Bigarren eguna hasteko, SusAn-ek kofinantzatzen dituen proiektuetako batean parte hartzen duen abeltegi bat bisitatu zuten: "FreeWalk" (<https://era-susan.eu/content/freewalk>).

Jarraian, 2 tailer dinamiko egin ziren koordinatzaileekin, ELIKAK eta ILVOK gidatuta. Tailer horietan, ikasitakoak eta jardunbiderik egokienak identifikatu ziren (to do's and not to do's lists), interes-taldeek proiektuetan parte har dezatela lortzeko eta ikerketen emaitzen komunikazioa nahiz hedapena hobetzeko.

SusAn Webguneko albistea (<https://era-susan.eu/content/successful-transnational-research-susan-mid-term-seminar>)

Joint Programming artikulua (<http://www.jointprogramming.nl/news/spotlight/>)

Tailerren ondorioak (to do´s and not to do´s lists) (https://investigacion.elika.eus/wp-content/uploads/sites/5/2019/04/Workshop-stakeholders_SusAnseminar.pdf)

Photo story (<https://photos.app.goo.gl/WW47nuNjBwStDpY9>)

ELIKA . Granja Modelo, z/g . 01192 . Arkaute (Araba) . Telefonoa: 945 122 170 . Faxa: 945 122 171 .
berri@elika.eus (mailto:berri@elika.eus)